

Elkarrizketa
politikoak

GARAI



"Gaur egun udalerrri txikiok sekulako arazoa dugu gure eskumenak garatzeko eta gure zerbitzuak hobetzeko"

Garai • Herri txikietako udalek bizi duten egoeraren inguruko hausnarketa egin du Erramun Osa Garaiko alkateak. Hirigintza Planaz, osasun zerbitzuaz, mugikortasunaz eta beste gai batzuez berba egin du ANBOTOkoko elkarrizketan. • **2-3**

Euskararen aurkako oldarraldia gelditzeko manifestazioagaz bat



Durangaldeko euskalgintzako eragileek eta hainbat udalek bat egin dute Euskalgintzaren Kontseiluak biharko, azaroak 4, Bilbon deituriko manifestazioagaz. Orain aste bi, Durangaldeko eragileek agerraldia egin zuten mobilizaziora deitzeko. Durangoko, lurretako, Zaldibarko, Atxondoko eta Otxandioko udalek ere babestu dute deialdia. • **2-3**

Talde Batuak 50+3 ospatuko du asteburuan, Abadiñon

Abadiño • Talde Batuak dantza taldeak 50 urte egin zituen pandemia sasoiaren. Ezin izan zuten urteurrena ospatu, eta asteburu honetan dute ospakizun jaiak: 50+3. • **6**

Akerbeltzek Durangon borobilduko du bere urteurrena

Kultura • Akerbeltz erromeria taldeak kontzertu berezi batez ospatuko du bere 15. urteurrena; kontzertu solidarioa izango da eta gonbidatu sorta handia izango dute, gainera, besteak beste, Zuriñe Hidalgo, Rozalen, eta Alex Sardui. • **25**





Erramun
Osa Ibarloza

Garaiko alkatea

ZIZURKIL | 1964

“Mugikortasun eredu publikoa ez da eragingarria herri txikietarako, eta ez dago herritarren beharizaneiei begira”

Erramun Osa Garaiko alkateak Hirigintza Plana, mugikortasuna, Osakidetzak lehen arreta zerbitzua kendu izana eta goi tentsioko linea izan ditu berbagai, besteak beste

ELKARRIZKETA • JONE GUENETXEA

Erramun Osak bigarren legegintzaldiari ekin dio Garaiko Udalaren buru. Herri txikiek bizi dituzten arazoez gainera, Garain martxan ipini dituzten proiektuen berri eman du.

Hirigintza Plana dela eta, azterketa bat egingo duzue herriko beharizaneien ezagutzeko. Zertan da ikerketa hori?

Gure Hirigintza Plana orain 32 urte onartu zen eta zahartuta geratu da. Orain, prozesu hori gidatuko duen taldea izendatu dugu eta aste honetan partaidetza plana erabakiko da. Aurreko agintaldiko amaierarako pleguak onartzea izan da asmoa, eta agintaldi berriaren hasieran lantaldea prest egotea. Prozesu honetan, askotariko erakundeek txostenak jaso behar

dira, eta baita partaidetza plan bat ere.

Zein da plan horren helburua?

Aukera hori baliatzea irudikatzeke, 20 edo 30 urte barruko Garai zer-nolako izatea gura dugun izan behar du helburutzat. Bestetik, gaur egungo beharizaneetatik abiatuta ikustea zer-nolako erronkei egin behar diegun aurre etorkizun hurbilean. Prozesua ez da kontu formal bat izango. Batez ere izan behar da prozesu bat, zeinetan, esate baterako, herritarrek ikusiko duten herri basoak zelan kudeatu, zer-nolako arazoak ditugun herri bideen inguruan, zelan aurre egingo diogun etxebizitzaren problematikari, zelan sustatuko dugun baserrietan unitate familiar gehiago izatea belaunaldi diferenteak elkarren arrimuan egon ahal izateko eta jendea ahalik eta denborarik luzeenean egoteko bertan. Eta baserri horien eraberritzean ere arazoei irtenbidea emateko, ingurumen arloan ditugun arazoak konpontzeko... Hau da, hirigintza plan batean askotariko gaiak kontuan izan behar dira.

Udalak zerga bat onartu zuen bere lurretatik pasatzen diren hornidura enpresei tasa bat kobratzeko. Martxan ipini duzue dagoeneko?

Ondo bidean, datorren urterako izango da martxan, urtarrilaren 1etik aurrera. Horrelako enpresei buruz berba egiten dugunean, sarritan kableak edo hoditeriak ipintzen dituzte, eta hor geratzen dira, hainbat urterako. Atarramendu ekonomiko bat ateratzen dute horren kontura, baina hortik ez da ezer geratzen herrietan. Guk uste dugu enpresa horien partetik erantzukizun bat egon behar dela, eta dituzten irabazien parte bat gutxienez azpiegitura horiek ipintzen dituzten herrietara bueltatu behar dela. Gainera, horrelakoak askotan pasatzen dira herri txikietatik, eta goragoko erakundeetan nahikoa indar ez daukagunez, errazagoa gertatzen zaie era horretako azpiegituretan bidea egitea. Denbora tarte txikian, gure herrietan dorreak ipini dituztela ikusi dugu; kableak ipini dituzte gure mendietan, eremu pribatuetan zein eremu publikoetan, batez ere argindarra garraiatzeko.

Zertan da goi tentsioko linearen proiektua?

Alegazioak aurkeztu genituen eta oraindik ez digute erantzun. Horrek erakusten du zer-nolako sentiberatasuna dagoen enpresa handien kasuan horrelako azpiegiturak egiten dituztenean. Guk gure eskura dagoen guztia egingo dugu gure herritarren defendatzeko eta gure eremua zaintzeko. Bizkaiko Foru Aldundiak ere bere kontraktasuna adierazi du, baina, hala ere, ikusi egin beharko da zelako lineak ezartzen diren, es-

tatuak ere bere erabakiak hartzen ditu eta.

Mugikortasunari dagokionez, zein egoera bizi duzue Garain?

Herri txiki baten ikuspuntutik, lurralde modura gaia aztertu behar dugu. Udal Legeak eskumen bat emateak ezer gutxirako balio digu, gero eskumen horiek aurrera ateratzeko baliabiderik ez badaukagu. Gaur egun udalerritxikiok sekulako arazoa dugu gure eskumenak garatzeko eta gure zerbitzuak hobetzeko. Udal finantziarioaren arloa ondo aztertu behar da udaletan indarririk handiena duten alderdi bien partetik. Horregaz zerikusia dauka zelan ikusten dugun lurraldearen kohesioa. Bizkaia ez dira bakarrik hiri ertain eta handiak. Landa eremuak, herri txikiak eta ertainak ere hor gaude. Ikusi egin behar da zelan bideratzen ditugun gutxieneko bitartekoak eta zelan antolatzen ditugun zerbitzuak benetan herritar guztiek zerbitzuen ikuspegitik aukera berdinak izateko.

Zerbitzu horiei dagokionez, denbora batetik hona ez duzue lehen arretako zerbitzurik Garain.

Guretzat kezagarria da eta berba egiten ari gara Osakidetzagaz, iruditzen zaigulako lehen arretako zerbitzua berreskuratu egin beharke genukeela Garain. Koste handia eta eraginkortasun kontuak izaten dira askotan ipintzen diren aitzakiak. Udalerritxikietatik zerbitzuek ez dute, hain zuzen ere, kostetik handiena eragiten. Ikuspegi hori aldatu egin behar da. Gure kasuan, anbulatoriora joan behar dugun bakoitzean, Berrizera joan behar badugu, gure herritarrentzat arazo bat suposatzen du.

Mugikortasunaren ikuspuntutik, zein egoera bizi duzue?

Mankomunitatean azterketa bat egin zen eta geu gara, batez beste eta pertsonako, kotxerik gehien duen Durangaldeko udalerria. Baten batek pentsatu beharko du zergaitik gertatzen den hori. Gure mugikortasun eredu publikoa ez da eragingarria landa eremurako eta herri txikietarako, eta ez dago herritarren beharizaneiei begira. Geralekua Santa Katalinan ipintzen baduzu eta autobusa hartu behar duenak kilometro eta erdi oinez egin behar badu bertara joateko, hori ez da eraginkorra. Gero ezin daiteke esan gutxi erabiltzen dela. Kontua da ea zergaitik erabiltzen den gutxi. Horri gehitu ordutegien arazoa. Landa eremuan eta herri txikietan mugikortasunaren arazoak eragozpen handiak sortzen dizkigu. Esaterako, adineko pertsona batek beste norbaiten laguntza behar du anbulatoriora joateko edo erosketak egiteko, guk hemen ez daukagulako dendarik. Beste adibide bat: Garain ez dugu eskolarik. Adin batera arte Hez-

kuntza Sailak autobusa ipintzen du, baina hortik aurrera gurasoen edo aitita-amamen zeregina da joan-etorriak antolatzea, horrek suposatzen duen guztiagaz. Eta horren gaineko eskumerna udalez gaindiko erakundeek dituzte. Eta eskumen horiek erantzukizun horiek badituzte, beste era batera planteatu beharko lituzkete benetan herritarren beharrianak kontuan hartzeko. Momentu ho-

Guretzat kezagarria da eta Osakidetzagaz berba egiten gabiltza, lehen arreta zerbitzua berreskuratu egin beharko genukeelako Garain

netan dugun zerbitzua oso mugatua da, eta ordu jakin batzuetan. Eskumena duenak egiten du, edo, bestela, guk erantzun bat eman beharko diogu errealitate horri, bestelakorik antolatzen ez den bitartean. Gutxienez, eskumena udalari ematea eta udalak osatu ahal izatea, zerbitzu hori herritarren beharrianak eta premiak kontuan hartuta.

Garain lehen sektorea zen nagusi. Orain ostalaritza.

Lehen sektoreari buruz berba egiterakoan, 10, 20 edo 30 urtera zer gura dugun pentsatu behar genuke. Elikadurari dagokionez, nondik datoz gure produktuak, eta horrek zein eragin du ingurumenean? Eta norik zainduko ditu inguruak? Orain arte, batez ere, lehen sektorekoek zaindu dituzte baso, landa eta bestelakoak. Nork sortuko ditu beharrezko elikagaiak? Ala kanpotik ekarriko dugu dena? Herri erakundeen aldetik, inplikazio apur bat handiagoa behar da lehen sektorea sustatzeko. Baina hau ez da ohiko lan bat. Sektore horretan dabilen familia batek 24 orduak ematen ditu bere esplotazioan. Baina horrek bizitzeko aukerak eskaini behar dizkie. Bestalde, herri basoen kudeaketa ere oso lotuta egon da lehen sektoreagaz. Jendeari erraztasunak ematea izan da gure apustua, eta akordioetara helduta lur pribatu horiek erostea, mugakide diren neurrian. Eremu horietan kudeaketa publikoa bideratu dugu. Horrek aukera ematen du herri basoen hedadura zabaltzeko eta bertako arbolak eta espezieak landatzeko. Prozesu horrek aukera eman digu 100.000 metro koadro herri-baso bihurtzeko. Agintaldi honetan beste 100.000 metro koadro herri-baso bihurtzea da helburua. Eukalipto eta



horrelako landareak ipintzearen kontra nago, baina alternatibak ere eman behar ditugu. Ahalegin partekatu bat behar da Aldundiaren aldetik ere.

Momentu honetan, zein proiektu duzue esku artean?

133.000 euro lortu ditugu kirol instalazioak hobetzeko. Horrek zerikusia du zahartze aktiboa sustatzeagaz eta gazteei euren aisialdirako beste azpiegitura bat sortzeagaz. Gimnasio txiki bat

sortuko dugu frontoiaren eta bolatokiaren artean. Beste proiektu bat hile honetan martxan ipiniko dugun podologia zerbitzua da.

Garairako bidean autoek hartzen duten abiadura arazo bat da?

Arazo handia dugu kontu horreagaz. Bide horren zati batzuk udalak kudeatzen ditu, eta Aldundiak beste batzuk. Gure bideetan saltoak ipintzen ahalegindu gara. Gerediagatik Garairako bidean eta Garaitik Goiuriara

abiadura handian doaz batzuk. Hainbatek karrerak egiten dituzte. Begiratzen gabiltza ea Santa Katalinan aktuazio bat egin dezakegun. Eta momentu jakin batean Aldundiagaz berba egin beharko dugu, euren tartean ere zenbait eragozpen ipintzeko. Ezin dugu kotxe gidariak, oinezkoak zein bizikletan dabiltzanak arriskuan ipini, errepidea euren dela pentsatzen dutelako beste batzuek.



Okm:
batzen gaituen
distantzia

abantaila
guztiak
hemen >



Egin zaitez anbotokide!

**30€
urtean!**

**anboto
kide**



Jaime Intxausti Otamotzenako auzo gunea dinamizatzen dabilen kideetarikoa bat da.

"Bizilagunak eskertuta daude Otamotzenako auzo elkarteagaz; beharrezkoa zen horrelako zerbait"

Joan zen zapatuan, Durangoko lehenengo zentro zibikoa inauguratu zuten: Otamotzena auzogunea. Auzotarrentzat topagunea izatea gura dute, ume eta nagusientzat batez ere

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Jaime Intxausti (Abadiño, 1976) Herria Auzo Elkarteak eta Otamotzenako auzogunea dinamizatzen dabilen kideetarikoa bat da.

Urteetan eginiko lanaren ondoren, Otamotzena auzo etxea jaio da.

Bai. Ematen du gauzak egun batetik bestera lortzen direla, baina lokal honen atzean hamabi urteko lana dago. 2012an, inguru honetan zegoen hiltegia zarratu zutenean, auzo etxe bat sortzeko ideia bururatu zitzaigun. Ordu hartako gobernu taldeak begi onez ikusi zuen azpiegitura bat sortzeko asmoa. Proiektua aldatzen joan da urte haueetan guztietan, eta, azkenean, honako lokal hau dugu. Ez da guk gura genuen besteko eremu zabalak, baina pozik gaude emaitzagaz.

Auzo etxeak bizilagunen zein beharrezkoen erantzun die?

Auzogune honek helburu garran-

tzitsu bat du. 2015ean, Durangoko alde honetako bizilagunen beharrezkoen buruzko inkesta bat egin zen. Eta bertan argi geratu zen hamar urtetik beherako ume eta 65 urtetik gorako herritar asko zegoela. Distantziak ez dira luzeak, baina Durangoko punta batean gaude. Erdigunean, Alde Zaharra eta Ezkurdi inguruak dituzu. Baina hemengo nagusi eta umeek igarri egiten dute distantzia hori. Euren beharrezkoen erantzutea da proiektuaren helburua. Egoteko toki bat eta ondo pasatzeko toki bat eskaintzea.

Lokala hutsik dago oraingoz, baina argi duzue edukiz beteko duzuen.

Momentu batetik bestera taberna lizitazioa ateratzea da gure asmoa. Horrek aukera emango digu lokala goizetik gauera zabalik izateko, auzotarren bat edo elkarteak kideren bat lokala zaintzen ipini behar izan barik. Lizitatu arteko

denbora tarte horretan, ekitaldiak izango ditugu auzo lokalean.

Zeintzuk ekintza egingo dituzue?

Eguaztenetan kafe eguna antolatzen hasi gura dugu. Debalde izango da 80 urtetik gorakoentzat. Azaro honetan, adinekoei begirako tailer psikosoziala, umeentzako ipuin kontalariak, magia ikuskizuna eta suizidioaren prebentzioa lantzeko berbaldea izango ditugu.

Aramotz, San Roke, Errotaritzuena, Otamotzena... Zelako auzo bizitza dago Durangoko alde honetan?

Azken urteotan gazte jende asko etorri da hona bizitzera. Fumbarri inguruan etxebizitza asko egin da, eta umeen kopurua hazi egin da. Berdin jende nagusiarena ere. Jendea gogotsu dago. Auzoko bizilagun askok eskerrak eman dizkigu proiektu hau martxan ipini dugulako. Zerbaitek egitea beharrezkoa zela ikusi dute.

Martxan da merkataritza bonuen kanpaina berria

Durangoko Udalak 10.680 bonu kaleratu ditu herritarrek dendetan, tabernetan eta jatetxeetan erabiltzeko

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Herritarrek 10 euroan erosi dezakete txartel bakoitza, eta txartelagaz gero 15 eurora arteko kontsumoa egin establezimendubatean. Pertsona bakoitzak 6 txartel eskuratu ditzake gehienez.

Udalak 53.400 euro ipini ditu egitasmorako. Herritarrek bonoa. *durango.eus* atarian edo Turismo Bulegoko (Kurutzasantu) eta HAZ Herritarrentzako Arreta Zerbitzuko kutxazainetan izango dituzte eskuragarri txartelak.



Durangoko Artekalea.

Aurreikuspenen arabera, Madalenako plaza berritzeko obrak martxoan amaituko dira

Obrak "erritmo onean" egiten dabilzala esan du udalak

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Plaza herritar guztientzat irisgarri egitea da lanen helburua. Hori dela eta, udalak proiektua eraldatu du, eta aldapa txiki bat ipiniko du altuera desberdineko plataforma bi sortu beharrean. Bestalde,

komun publiko bat ipintzeko kokapen egokia zein den aztertzen dabilzala, hasierako kokalekua "teknikoki bideragarria ez delakoan" eta bizilagunek "desadostasuna" agertu dutelako kokapen horri dagokionez.



Madalenako plazan obrak egiten ari dira.

anboto >

**Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa**
Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

2023ko azaroaren 3a
21. urtea - 955 alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Durangoko zergek, tasek eta prezio publikoek bere horretan jarraituko dute datorren urtean



Joan zen astean eginiko udalbatza.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Zergak, tasak eta prezio publikoek dauden moduan uztea erabaki dute, "karga fiskala areagotzeko momentua ez dela" iritzita. Ondasunen eta Higiezin Zergan (IBI), adibidez, aukerako hobariak ipini dituzte kalteberatasun egoeran dauden herritarrei eta familia uga-

riei begira. Horrez gainera, birdefinitu egin dute etxebizitza hutsei ipintzen zaien errenergua, eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zergan ere hobariak ipini dituzte motorrek ingurumenaren duten eraginaren arabera. Zabor tasari loturiko onurak ere handitu dituzte, familia errentaren maila batzuen

arabera. Aldaketok oposizioko alderdiek aurkezturiko emendakinen fruitu dira. Gobernu taldeak oposizioko kideen zazpi emendakinen onartu ditu. EH Bilduren bat, eta Herriaren Eskubidearen eta PPren hiruna.

Josune Escotak aurreratu zuen "datorren urtean komertzioei ipiniriko zergak arinduko dituztela". EH Bilduko Iker Urkizak eta Herriaren Eskubideko Jorge Varelak adierazi zuten ordenantza fiskalak iazkoen parekoak direla: "Badirudi gobernu taldeak egokitzat jo dituela guk iaz onartu genituenak", esan zuten zinegotzi biek. PPko Carlos Garcia esker oneko agertu zen bere emendakinetariko batzuk onartu zirelako, eta Jessica Ruiz sozialistak denek ekarpenak eskertu zituen, horiek "ordenantza hobetu" dutelakoan.

Segis, Radiocrimen, Kittu eta sukalki txapelketa Luis Urrengoetxea kaleko jaietan

Eguenean hasi zituzten ekitaldiak, eta domekan amaituko dira. Lutaber tabernarien elkarteak antolatu ditu jaiak



Luis Urrengoetxea kalea.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Lutaber tabernarien elkarteak egitarau oparoa prestatu du Luis Urrengoetxea kaleko jaiak ospatzeko. Atzo ekin zieten ekitaldiei, eta jai giroak segida izango du gaur, iluntzetik aurrera. Gaur igel txapelketa (19:00etan), Zornotzako Otxotearen kalejira (19:30ean), Gu ta Gitarrak taldearen emanaldia (20:00etan) eta Txalainak taldearen kontzertua izango dituzte (22:30ean, Zelaietako karpan). Zapatuan, umeentzako jokoekin hasiko dute eguna. 11:00etatik 14:00etara rokodro-

moa eta ludoteka egongo dira Euskal Herria enparantzan. Hortik aurrera, Arantzarte dantza taldea eta sukalki txapelketa egongo dira. Elektrotxaranga batek Luis Urrengoetxeako kale inguruak animatuko ditu, 18:00etan, eta gau giroa Segis (Segismundo Toxicómano) eta Radiocrimen taldeek alaituko dute, 21:30etan. Domekan, umeentzako jokoak, trikitilariak eta giza proba izango dute. Azken horretan, Harriti eta Lutaber elkarteko kideak elkarren aurka lehiatuko dira. Desafioa 15:00etan izango da.

Lurdes Pujana omenduko dute kontzertu hunkigarri batez



Lurdes Pujana.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Datorren barikuan, azaroak 10 Lurdes Pujana omentzeko ekitaldia egingo dute Zornotza Areatoan. Herriko eragile ugariak parte hartuko dute bertan. Hantxe izango dira Etxanoko txalapartariak, Udabarri dantza taldea, Xuxurlariak abesbatza, Zornotzako

Otxotea, Beñat Egiarte tenorra, Josep Buforn pianista eta Andra Mari ikastolako gurasoen abesbatza.

Ekitaldia 19:30ean hasiko da. Sarrerak agortuta daude. Pujana Andra Mari ikastolako gurasoen abesbatzako presidentea izan zen. Iazko urrian hil zen.

Atxondo Harrera Herriak elikagai bilketa solidarioa egingo du

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Aste honetako saskia elkartasunez betetzeko deia egin eta elikagai bilketa solidarioa ipini du martxan Atxondo Harrera Herriak. Hori horrela, herritarrek urriaren 31tik azaroaren 11ra bitartean izango dute elikagai bilketan parte hartzeko aukera.

Ekimenaren atolatzailek honako produktu hauek eskatu dituzte: lekaleak, olioak, esnea, kafea, azukrea eta irina, besteak beste.

Bilketa gune bi ipini dituzte elikagaiok batzeko. Bat Arrazolako Amillena benta da, eta bestea Apatamonasterioko La Compra denda.

San Migel elizako habe bat eta elizpe ingurua konponduko dituzte

Garaiko Udalak segurtasun neurriak hartu ditu kalteturiko elizpe zatiaren ingurua zarratuta

GARAI • EKAITZ HERRERA

Bizkaiko elizbarrutiak Garaiko San Migel elizaren kanpoaldea konponduko du. Elizpeko habeetarik bat ustelduta dago eta teiltatu zati batek mugimendu txiki bat izan du. Hori dela eta,

udalak, segurtasuna bermatzeko, hesitu egin du kalteturiko elizpe aldeko eremua. Lan horiek egin ahal izateko, elizbarrutiak proiektua aurkeztu du udaletxean, eta obrarako lizentzia eskatu.



Segurtasuna bermatzeko, Garaiko Udalak kalteturiko eremua zarratu du.

MUSIKALDIA



AZAROAK 3
19:00 KULTUR ETXEAN
ITZIAR YAGUE



AZAROAK 10
19:00 KULTUR ETXEAN
JAZZCLASSIC ENSEMBLE
"EL JAZZ DE CLAUDE BOLLING"



AZAROAK 16
11:30 KULTUR ETXEAN
XABIER ZEBERIO
(Orobiogoitiako ikasleentzako)



AZAROAK 17
19:00 KULTUR ETXEAN
ELKANO BROWNING CREAM
"TRIO DE JAZZ"



Gonbidapenak Ibarretxe Kultur Etxean jasoko dira ikuskizunaren aurreko astean edo egunean bertan 18:30etatik aurrera.



PLAZA MUGATUAK:
SARRERA GOBIDAPENAREKIN



“Talde Batuak hiltorian egon da, baina gazteei eskerrak berpizten dabil”

Talde Batuakek 50+3 ospatuko du. Gaur Korrontzi izango dute. Bihar dantza saioa eta bazkaria, besteak beste

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Hiru urtean itxaroten egon eta gero, hemen da Talde Batuak urteurren jai. Dantza taldeko kideak 50. urteurrena ospatzekoak ziren 2020an, baina pandemiak bete-betean harrapatu zituen. Kontuak kontu, azkenean hemen da urteurrena, 50+3, eta asteburu osorako prestatu dute egitaraua.

Hiru urte geroago, baina, azkenean, hemen da Talde Batuak urteurrena. Zelan zaudete?

Leire Pagonabarraga: Bai, ondo kostata, baina heldu da. Orain hiru urte dena prest geneukan, baina entsegu orokorra egin behar genuen egunean konfinatu egin gintuzten, pandemia zela eta, eta hor geratu zen dena. Eta orain asko kostatu da berriro antolatzea. Azken momentura arte ez dugu jakin egingo genuen ala ez, zalantzak izan ditugu egin ala ez. Baina, azkenean, gutxi batzuk dena antolatzen hasi, eta gazte hauei eskerrak hemen dugu 50+3.

Antolatzea beti kostatzen da, eta aurten oraindino eta gehiago. Urteurren hau azken momentuan pentsaturiko zerbait da, eta denbora faltagaitik ez dugu belausaldi guztietako dantzariok dantza egingo. Dantza taldeko umeek baino ez dute dantza egingo. Eta hor gogo falta ikusi dugu jendearen partetik. Ez dago jenderik antolakuntzarako. Egunean bertan parte hartzeko bai, baina aurreko lan horretarako ez.

Gazteei eskerrak egingo ei da. Gazteek zelan hartzen duzue egun berezi hau, Elaia?

Elaia Abezia: Gogotsu, badakigu egun berezi bat dugula aurretik eta. Aurreko urteurrenean txikiak ginen eta ez daukat orduko akordurik. Aurten, txikien taldeko hutsuneak betetzeko dantza egitea proposatu ziguten, eta, beraz, plazara irtengo dugu.

L.P.: Gainera, Elaiak paper garrantzitsua du zapatuan. Atzeskua egingo du soka dantzan.

E. A.: Eta oso urduri nago. Ezpata Dantzari egunean egin nuen lehe-



Elaia Abezia eta Leire Pagonabarraga.

nengoz, eta orduan baino hobeto irtetea espero dut.

Zelan dago Talde Batuak gaur egun?

L.P.: Talde Batuak hiltorian egon da, baina gazteei eskerrak berpizten dabil. Zazpi bat urtean ez da inor hartu dantza taldean, ez delako egon nork erakutsi. Bagenituen umeak, baina ez arduradunik dantzak erakusteko, eta horri konponbidea ematea erabaki zen. Aurten arte, txikiak Lehen Hezkuntzako laugarren mailakoak izan dira. Lehenago, oster, hiru

urteko umeak ere bagenituen. Orduan erabaki zen Talde Batuak bertan behera uztea edo zerbait egitea aurrera ateratzeko. Eta gazteei eskerrak beste hiru talde sortu dira. Gazteak eurak hasi direlako dantza eskolak ematen.

Elaia, zuek zer dela-eta animatu zarat?

E. A.: Sasoi batean, gure taldea baino ez zebilen martxan, eta apurka-apurka guk ere dantza gutxiago egiten genuen; esaterako, ez ginen Euskal Jaietara joaten.

Orduan, Leirek galdetu zigun ea gure ustez zelan berpiztu zitekeen dantza taldea. Egoera aztertu, eta ikasturte berriagaz batera dantzak erakusten hasi gara. Eta oraingoz oso gustura gabilta.

Beste ezer gehitu gura duzue?

E. A.: 40. urteurrena egin zen moduan, 55.a egitea ere badarabilgu buruan. Ez dugu astirik izan 50+3 hau gura genukeen moduan prestatzeko, eta, beraz, jendea joan dadila hurrengorako prestatzen, antolatzen eta berotzen.

“Herria poliki-poliki hiltzen doa eta kanpainagaz herritarrak kontzientziatzea gura ditugu”

Elorrioko Merkatarri Elkarteko kideek kanpaina berri bat hasi dute. Azaroaren 30era arte egongo da martxan



Izaskun Agirre EMEko presidentea.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Merkatarri Elkarteko kideek 'Hemen, bertan gaude' kanpaina hasi zuten urriaren 31n. 'Dendak zabalik taupa bizirik' da kanpainaren leloa, eta azaroaren 30era arte egongo da martxan Izaskun Agirre EMEko presidentea azaldu duenez.

Kanpaina berri bat ipini duzue martxan. Zein da honen helburua?

Urtero egiten dugu horrelako kanpainaren bat, eta, urtero legez, herriko dendak zabalik mantendu ahal izatea da kanpainaren helburu nagusia. Herria poliki-poliki hiltzen dabil eta kanpainagaz herritarrak kontzientziatzea gura ditugu, herrian bertan erosi dezaten.

Herria hiltzen dabilela diozu. Gaur egun zein egoeratan daude komertzioak?

Gauden komertziook ondo gaude-la ematen du. Baina ikusten dugu jendea erretiroa hartzen dabilela apurka-apurka, eta ez dagoela erreleborik. Beraz, horrek dendak ixtea dakar.

Gainera, jendearen kontsumitzeko ohiturak aldatu egin direla ikusten dugu, jendeak Internet bidez erosten duela. Eta horrek ez digu batere laguntzen. Orokorrean, EMEko kideok triste gaude.

Hala ere, EMEko kideek kanpaina indartsu bat ipini duzue martxan, sari potoloekin. Jendeak zelan parte hartu dezake?

Jendeak erosketak herriko komertzioetan egitea da kanpainaren helburu nagusia. Herritarrek txarteltxo bat izango dute eta txartel horrek lau zigilu beharko ditu zozketan parte hartzeko. EMEko komertzioetan erosketak eginda lortuko dira zigiluak. Txartel bakoitzean lau komertzioetako zigilu bana beharko da.

Noiz eta zelan egingo duzue zozketa?

Abenduaren 4an egingo dugu, EMEn lokalean. 600 euro bonutan eta asteburu-pasak zozkatuko ditugu, besteak beste. Beraz, jendeak herriko komertzioetan erosketak egin, zigiluak lortu eta zozketan parte hartzeko aukera izango dute. Azaroaren 30era arte dute horretarako epea.

Herritarrei mezurik bidali gura diezu?

Data politik ditugu aurretik, Gabonak datoz, gure dendetan denerik daukagu eta herritarrak bertako dendetan erostera animatu gura ditut.



Hemengoak
izatea ona da

Bertako ekoizleekin konpromisoa

Hemengoak gara eta bertako produktuen
kontsumoa sustatzen dugu



EROSKI

zurekin

Mañariarrek eta izurtzarrek lehen arreta zerbitzuan dituzten gabeziak salatuko dituzte gaurko deitu duten elkarretaratzean

Herri bietako osasun zentroetan ez dago medikurik irailetik hona; medikuak baja hartu eta gero, Osakidetza ez du bere ordezkorik ipini oraindino



Udaletxe parean dagoen Mañariko osasun zentrorako sarrera.

MAÑARIA-IZURTZA • J.D.

Mañariko eta Izurtzako herritarrak haserre daude azkenaldian herri bietako osasun zentroetan jasotzen ari diren zerbitzua dela eta. Funtsen, irailetik hona medikurik ba-

rik daudela da kexa nagusia, horrek eragiten dituen eragozpen guztiekin. Herri bietara joaten den medikua bajaran dago eta Osakidetza ez du bere ordezkorik ipini oraindino. Egoera salatzeke, elkarretarazera

deitu dute gaur, 18:30ean, Mañariko plazan.

Mañariko alkate Ainara Otxotorenak eta Izurtzako alkate Oihane Irastorzak bat egin dute deialdiagaz, eta elkarretaratzean egongo di-

rela iragarri dute, euren sostengua emateko. "Egoera txarra" aspalditik datorrela adierazi du Otxotorenak. "Udan jada izan genuen arazoren bat edo beste. Medikuen opor sasoian ez genuen beste medikurik

izan. Orain, irailetik hona Mañariko eta Izurtzako medikua bajaran dago eta ez dago ordezkapenik. Erizainak etortzen jarraitzen du, baina ez dago medikurik. Ulertu dezakegu hasieran ordezkorik ez egotea, baina dagoeneko hile bi daramatzagu horrela. Lehen arreta zerbitzua bermatuta egotea premiazkoa dela deritzogu", gaineratu du. Horrek herritarrei hainbat oztopo eragiten diela salatu du. Esaterako, osasun arreta lortzeko, "lehenengo eta behin Iurretako kontsultategira deitu behar dute eta ikusi beste mediku baten agendan tokirik badagoen". "Gainera, ezin daiteke aurretik hurrengo egunen baterako ordua hartu. Egunean bertan deitzeke eskatzen dute", azaldu du. Herrira barik Durangoraino joan beharrak adinekoei eragiten dizkien zailtasunak ere aipatu ditu.

Iaz egora berean

Hau ez da herri bietako lehen arreta zerbitzuan dituzten gabeziak salatzen dituzten lehenengo aldia. Iazko abenduan ere berdin jokatu zuten herri bietako alkateek. Orduan kexa izan zen ez zutela medikurik ekarri bertako medikuaren abenduko oporrak ordezkatzeko. Osasun zentro biak egunetan egon ziren itxita.

Otxandion hasita dago nagusien egunerako izen ematea

Otxandioko Udalak eta Pasealeku jubilatuen elkarteak 'Gure Nagusien Eguna' antolatu dute azaroaren 12rako

OTXANDIO • J.D.

Azaroaren 12ko domekan 'Gure Nagusien Eguna' ospatuko dute Otxandion, udalak eta Pasealeku elkarteak antolatuta. Izen ematea martxan da parte hartu gura dutentzat, azaroaren 7ra bitartean. Jubilatuen egoitzan eman daiteke

izena, 12:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara. Hiru baldintza bete behar dira: 65 urtetik gora izatea, Otxandion erroldatuta egotea eta Pasealekuko bazkidea izatea. Bazkaria gimnasioan izango da eta 14:20an zabalduko dute bertako atea.



Pasealeku elkarteak udaletxe ondoan du bere egoitza.

Claveria eta Ruiz irabazle Mallabiko frontenis maratoian

Dena galduta zutela, markagailua iraultzea lortu zuten



Mallabiko frontenis txapelketako finalistak.

MALLABIA • J.D.

Mallabiko binakako frontenis maratoia Jose Angel Claveria nafarrak eta Adrian Ruiz bilbotarrak irabazi dute, Eloy Burgales burgostarraren eta Sergio Garcia segoviarren kontra.


Aldats gora izan zuten finala (4-8), baina azken minutu bietan markagailua iraultzea lortu zuten hiru tanto bikoitz lortuta. Buruz buruko maratoia Mikel Sanchez otxandiarrak irabazi zuela azaldu dute antolatzaileek.

Mallabiko idi proba txapelketak jaialdi bi izango ditu azaroaren 10ean eta 13an

MALLABIA • J.D.

Mallabiko idi proba txapelketa ate joka dator. Aurten 34. aldia egingo du eta urtero lez goi mailako parte hartzaileak ekarriko dituzte. Zazpi idi pare lehiatuko dira pilotalekuaren ondoan dagoen Mallabiko udal probalekuan. Guztira jaialdi bi antolatuko dituzte: azaroaren 10ean eta azaroaren 13an. Jaialdi bata zein bestea 21:30ean hasiko dira. Barikuan honako parte hartzaile hauek lehiatuko dira jokoan jarritako diru sariaren bila: Mendigoitxi, Billabaso, Benguria eta Lopategi. Astelehenean, berriz, honako parte hartzaileak ariko dira garaipenaren bila: Txinko, Kamiñoko eta Olazar.

merkataritza gida sarean



anboto.org/gida



***Ezagutu eta erabili Durangaldeko
merkataritza gida euskaraz eta sarean!***

Merkataritza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902

Argazkiak - Datuak - Kokapena

(urtean 50€)



Anbotokideen txokoa


AZAROKO ZOZKETAK



Arrainak bihotzean txotxongilo ikuskizunerako sarrera bikoitza. Azaroaren 12an, San Agustinen.



Herria tabernan bi pertsonentzako gosaria. Durango.



Xiberu tabernan bi pertsonentzako gosaria. Zornotza.

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

IRABAZLEAK

'Ez naiz inoiz Dublinen egon', San Agustinen:

Celia Munitxa Duñaiturria

Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalurrera Berrizen:

Maite Gorritxategi eta Txomin Iturrioz Malaina

Okm:
batzen gaituen distantzia

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Dorleta Kortazar eta Joxe Aldasoro.

Heldu Da Kontua 2023 proiektuaren irabazleak Berrizen entzungai

Joxe Aldasorok 'Mingots eta langarritik' kontakizun saioa egingo du azaroaren 28an, 19:00etan, Kultur Etxean

BERRIZ • J.G.

Helduentzat euskaraz sorturiko kontalaritza programazio egonkor bat sortzeko asmotik eta euskarazko kontalaritza sorkuntza berriak bultzatzeko konpromisotik hasitako egitasmoa da Heldu Da Kontua.

Hartara, II. Helduentzako Kontalaritza Sorkuntza Saria ipini dute martxan. Dorleta Kortazar eta Joxe Aldasoro artistek irabazi dute 2023ko edizioko saria. Lehiaketa honetara aurkeztu dituzten sor-

kuntzak ezagutarazteko, Euskal Herriko hainbat herri bisitatuko dute, tartean Berriz. Dorleta Kortazarrek atzo egin zuen *Ispiluak* izeneko saioa, Berrizko Kultur Etxean. Joxe Aldasoro azaroaren 28an izango da Kultur Etxean, *Mingots eta Langarritik* emanaldiaz, 19:00etan.

Zirkuitu honetan, zortzi herrik parte hartu dute: Arrasatek, Etxarri-Aranatzek, Eskoriatzak, Alaitzak, Ozaeta-Barrundiak, Tolosak, Zizurkilek eta Berrizek.

Berrizko Hiltegixe gaztetxeak ekintza gehiago antolatu du 25. urteurrenagaitik

BERRIZ • A.M.

Berrizko Hiltegixe gaztetxeko kideek 25. urteurrena ospatzen jarraitzen dute. Azaroko beste hiru ekintza antolatu dituzte. Lehenengoa, gaurko, azaroak 3, *Mari: ixilik nahi gaituztenean* pelikula emango dute gaztetxean, 19:00etan. Oñatiko Antixena gaztetxeak ekoitziriko filma da hau. Azaroaren 18rako musika jaialdia

19:00etan 'Mari: ixilik nahi gaituztenean' filma emango dute; Oñatiko gaztetxeak ekoiztu du

antolatu dute gazteek, Berriz Hardcore Krew elkarteagaz batera. 18:00etan hasita, Worth It, Unfix, Eje, Armarrri, Ezta Ilen, Kolpeka, Aresi eta Ternura taldeek joko dute. Azaroa borobiltzeko, azaroaren 25erako beste kontzertu bat antolatu dute Hiltegiaren Berrizko Ernai, Azeri Gorriak eta Berrizko Emakume Migratuen taldeekin batera. Las Sexpeares Barakaldoko hirukoteak emango du kontzertua, 20:30ean. Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Eguna dela-eta antolatu dute kontzertua.

20.000 eurora handitu dute aurrekontu parte hartzaileetako diru partida

Azaroaren 8an partaidetza batzarra egingo dute. Udalak abenduaren 19rako deituko duen bigarren bilera parte-hartzailean bideragarriak diren proposamenak aukeratuko dituzte

ZALDIBAR • J.G.

Zaldibarko Udalak parte hartze prozesu berri bat ipini du martxan 2024ko udal aurrekontuak egiteko. Orain, 20.000 eurora handitu dute horretarako partida, iaz baino 5.000 euro gehiago. Hainbat bide erabili daiteke parte hartzeko eta proposamenak egiteko: udalak azaroaren 8rako deituko duen partaidetza-bileraren bitartez, aurrez aurre udal bulegoetan eta liburutegian, eta Internetez udalaren zaldibar.eus web orriaren bitartez. Proposamenetako gaiek udal eskumenekoak izan beharko dute. Proposamenak egiteko epea azaroaren 8tik 24ra izango da.



Zaldibar.

Durungaldeko hainbat udal eta eragilek bat egin dute Kontseiluak zapaturako deituriko manifestazioagaz

Durango, Iurretako eta Zaldibarko udalek bat egin dute deialdiagaz. Durungaldeko hainbat eragilek ere bai

DURANGALDEA • JONE GUENETXEA

Euskalgintzaren Kontseiluak manifestaziora deitu du zapaturako, azaroak 4, Bilbon, *Oldarraldiaren aurrean: euskararekin bat, euskaraz bat* lelopean. Euskararen normalizazioaren kontrako epai sortagazko desadostasuna agertu dute Kontseiluaren kide diren

eragileek. Deialdi horregaz bat eginez, Durungaldeko hainbat udalek mobilizazio horregaz bat egin dute. Durangoko EH Bilduk, EAJk eta Herriaren Eskubideak "larrizat" jo dute euskara "zerbitzu eta lan hizkuntza dela dioten lege artikulua indargabetzea". Horrenbestez, "hizkuntza esku-

bideen alde daudenak eta euskara biziberritzearen alde aktiboki dabilzanak" deitu dituzte manifestazioan parte hartzera. Bestalde, Iurretako eta Zaldibarko EAJk eta EH Bilduk bat egin dute euskararen erabilera arautzen duen dekretuko hainbat artikuluren baliogabetzearen inguruan EUDELeke adostu duen adierazpenagaz. Atxondon, udalak eta hainbat herritarrek argazkia ateratu dute mobilizazioagaz bat egiteko. Otxandioko Udalak ere bat egin du Kontseiluaren deialdiagaz.

Durungaldeko eragileak

Orain aste bi, Durungaldeko euskalgintzako eragileek agerraldia egin zuten Durangoko Ezkurdin, zapaturako manifestazioan parte hartzera dei egiteko.



Manifestaziora joateko dei eginez Atxondon ateratako argazkia.

Baserrietako etxebizitza kopurua handitzeko ordenantza lantzen

Baserri bakoitzeko gehienez ere lau etxebizitza egokitzea aurreikusi dute. "Baserrien iraupena eta biziraupena bermatzeko alternatiba bat planteatzea" da udalaren helburua

IURRETA • JONE GUENETXEA

Iurretako baserrietako etxebizitzaren banaketa arautuko duen ordenantza lantzen dabil udala. "Une honetan, 180 bat baserri ditugu, eta ordenantza honi eskerrak, etxebizitza kopurua handitu ahal izango dugu, baserri bakoitzeko gehienez ere lau etxebizitza banatuz, betiere ordenantza horrek ezartzen dituen baldintzak betetzen badira", azaldu du Iñaki Totorikaguena Iurretako alkatea. Proposamena aho batez onartu dute osoko bilkuran, eta alegazio fasearen ondoren behin betiko ordenantza onartu beharko dute. Seguruena, datorren urtearen hasieran izango da indarrean.



Iurretako Gaztañetza-Behekoa (Bizko) baserria.

Euskararen aldeko ufada, Durangaldetik Nafarroa hegoaldera Errigoragaz

Nafarroako produktuez beteriko saskiak sarean eskatzeko epea azaroaren 9ra arte dago zabalik, 'errigora.eus'-en



Joan zen domekan Kurutzia Ikastolan eginitako auzolana.

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Durungaldeko 120 euskaltzale Kurutzia Ikastolako frontoian batu ziren, joan zen domekan, Errigoraren aldeko auzolana egiteko. 9:30ean hasi eta 13:00ak arte, eskurik esku eta auzolanean, geratu barik bete zituzten Nafarroa hegoaldeko produktuekin osaturiko saskiak. 2.500 bat guztira. Auzolanean, euskara, elkartasuna, Nafarroako ekoizlearen produktuak eta umore sanoa harilkatu zituzten. Errigorak orain dela egun gutxi ipini zuen

martxan udazken honetako kanpaina. 50 euroren truke, Nafarroa hegoaldeko produktuekin osaturiko saskiak salgai ipini dituzte, gero, baturiko diruaren %25 hango euskalgintzako eragileen artean banatzeko.

Dinamikak 10 urte bete ditu aurtun. Hamarkada honetan, 130.000 otzara baino gehiago banatu dituzte Euskal Herri osoan. Baturiko dirua Nafarroako hegoaldeko eta erdialdeko euskalgintzara bideratu dute. 1.800.000 euro guztira.

www.bertsozale.eus
www.bertsosarrerak.eus

BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2023

1. FINALAURREKOA
AZAROAK 11
BERRIZ
OLAKUETA FRONTOIA. 17:00

Aitor Etxebarriazarraga Gabiola, Eneko Abasolo Txabari, Gorka Pagonabarraga Agorria, Iruri Altzerreka Martinez, Koldo Gezuraga Sejjido eta Xabat Gallettebeitia Abaroa.
Gai-jarzailea: Itxaro Juaristi Olaetxea.

Antolatzailea: Bertsozaleak
Babesleak: Bizkaia, bbk, bertsozaleak
Laguntzailea: anboto

Erabakita dago nortzuk diren gaur egingo den Durango Sarietako irabazle guztiak

Epaimahaiak 27 proposamenetatik 6 irabazle aukeratu ditu. Durangarrek irabazle bi



Durango Sarietako sarituak.

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Azaroaren 3ko barikuan, 19:30ean, Durangoko Udalak Durango Sarien bigarren edizioako sariak banatuko ditu San Agustín Kulturgunean. Prozesua uztailen hasi zen. Orduan, Durangoko bizilagunek hautagaitzak aurkeztu zituzten. Ondoren, irailean, jasoriko 27 proposamenak aztertu eta arlo batzuetako irabazleak erabaki zituen epaimahaiak. Hauetxek dira eurek aukeraturiko irabazleak: Durango Rugby Taldea, Deniba Konare judoka, Kriskitin Dantza Taldea, Gerediaga Elkarteko lehendakari Nerea Mujika, Jaed eta Kortabartea anaiak.

Bestalde, herritarrek Juan Antonio Aroma txistularia eta Jone Aizpurua triatleta aukeratu dituzte irabazle bez.

Politikan

Paule Sanchez
Arieta-Araunabeña
EAJ



Nire ama-hizkuntza defendatuko dut

Gabriel Arestik zioen "Nire aitaren etxea defendatuko dut. Otsoren kontra, sikatearen kontra, lukurreriaren kontra, justiziaren kontra, defenditu egingen dut nire aitaren etxea".

Euskararen normalizazioa zalantzan jartzen duten epaien hazkundea kezagarria da. Biziberritze prozesuan eraikitako adostasun zabalaren kontrakoak dira eta epaia ematen dutenen arabera, euskara lehenesten omen da gaztelania baztertuz.

Euskara hizkuntza gutxitua da, historiako uneren batean bazterketa, jazarpena eta debekua jasandakoa, eta hizkuntza-normalizazioaren helburua gutxituari ukatutako funtzioak berreskuratzea eta bermatzea da.

Hala eta guztiz ere, euskara eta gaztelania biak ofizialak izan arren, oso urrun daude berdintasun egoera baten egotetik eta hizkuntza eskubideak egiazki errespetatuko direla ziurtatu beharra dago, dugu. Kontuan izan, gainera, gehienok bizitzako esparru guztietan euskaraz ere jardutea nahi dugula.

Euskara ezagutu eta maite dugunoi lan gogorrena egitea dagokigu, traxionatzea: euskara ezagutzearen onurak aldarrikatuz, guretzat suposatzen duena ikusaraziz, sentiarazten digunaz hitz eginez, lotsatienak praktika-ara animatuz, ezagutzen ez duena ikastera eta erabiltzen ez duena erabiltzera erakarri...

Euskara gaitzetsi eta gutxies ten duzenok lan bakarra daukazue egiteko: ez ezazue ezer egin, ezta normalizazio bidean dagoena oztopatu ere.

"Ni hilen naiz, nire arima galduko da, nire askazia galduko da, baina nire aitaren etxeak iraunen du zutik." Nire ama-hizkuntzak iraungo du zutik.

Iritzia

ASTEKARIA@ANBOTO.ORG • ASTEARTEA 17:00AK ARTEKO EPEA

GUTUNA

1995ean Eusko Jaurlaritzak Durangoko Magdalena plaza ustezko gune arkeologiko izendatu zuen. 2005ean Durangoko Udalak araudi urbanistikoak onartu zituen izendapen hura jaso zuen bertan. 2023an plaza horren moldaketaren proiektua prestatzerakoan udaleko bulego teknikoak ez zuen "xehetasun" hura kontuan izan. Zinegotzi batek gai honi buruz galdetu zuenean, bulego teknikoak adierazi zioten ez zirela konturatu edo ez zutela ezagutzen araudi urbanistikoan jasotako baldintza hura, edo antzerako erantzunak eman zizkieten. Ondorioz, "legea betetzeko", arkeologo bat izendatu dute lanen kontrol arkeologikoa egiteko. Baina ez da indusketarik egingo "ez dutelako lurra eragingo". Arkeologoak zerbait agertuz gero baino ez du ikusiko baliorik duen ala ez. Obrako makina batek bere "gozotasunarekin" azaldutakoa ikusiko du. Aipagarria eta bitxia da baita ere lurra ez dutela eragingo azaltzea. Tokira doan edonork ikusi ditzake makinak lanean, eta inguruko biztanleek gogoratuko dute eraikuntza zaharren aztarnak azaleraturik zeudela, ia bistan. Gaur egun, ermita dagoen tokian, 1809. urtera arte XV. mende inguruan eraikitako Magdalenako eliza ze-

goen, eta inguruan Durangoko "lazaretoa". Elizaren tokian 1811n Durangoko kanposantua egin zuten. Kanposantua itxi zutenean gaur eguneko kaperara eraiki zen.

Oso gutxi dakigu eliza zahar eta inguru horri buruz, eta iruditzen zait oraingoan ere ezagupen horretan sakontzeko aukera galdu dugula. Ez da lehen aldia. Oroitzen naiz 1977tik, Ibaizabal aldizkarian Jose M^a Uriartek argitaratutako 'Ez dira bakarrik harriak' izenburuko artikulutik gaur egunera arte zenbat borroka egin behar izan dugun. Durangaldeko udalek ia beti behartuta baino ez dute egin ondarearen alde, eta bereziki arkeologikoen alde, pausoren bat. Akats bat da pentsatzea historia museo bat edukiz gero bukatu direla erakundeen konpromiso eta betebeharrak. Museoa gure iragana berreskuratzeko oinarritzako tresna da, baina erakunde eta gizartearen laguntza gabe, turistentzako bitxikeria bat izaten bukatu dezake. Gurako nuke pentsatzea Magdalenak gordetzen duen historia oraindik eskuratu ahal dugula, eta, horregatik, mugitu gaitzen. Hor ditugu Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia, Arkeologi Museoa eta beste erakunde batzuk gure ezjakintasunean laguntzeko sortuak.

Jon Irazabal Agirre

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9, -IURRETA • Izen-abizenak • telefona • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

LIBURU AURKEZPENA EGILEAREKIN



AZAROAK 10
19:00

Aurkezlea
NEREA GOIOAGA
HIZKUNTZA : ELEBITAN

ERRESERBAK

946812726

688863736

Iurreta
Elizateko Udala
HERRI BIBLIOTEKA

biblioteca@iurreta.eus



clínica dental hartz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA • INPLANTOLOGIA • KIRURGIA
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA IKUSEZINA
ODONTOLOGIA PEDIATRIA - PADI • HORTZETAKO ESTETIKA
HORTZETAKO ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }


Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

BURUARI KLIK!




EGOKIA TOPATU

Zein erradiografia egin diote neskatoari?




LABIRINTOIA






MARGOTU

Margotu paisaia gurago duzun moduan.
Zenbat animalia ikusteko gai zara?



ITZALAK


Beheko itzal hauetatik, zein dago ondo?














ZEIN BAI?

Goiko irudi honetatik hartutako lau zati ondo daude, zeintzuk?




ZEIN DA ZEIN?

Lotu ezazu animalia bakoitza dagokion origamiagaz.





ORIGAMI

Jarraitu pausoei eta igela egingo duzu.














SUKALDEAN

Zenbat pizza zati egin ditzakezu dauzkazun osagaiekin?



DOMINOA

Marraztu dagokion irudia lauki zurietan.





Gremioen gida

Zurgintza

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Zurgintza

ATERPE AROTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



Profesionalik onenak zure zerbitzura!





'Verso a verso'

ERREZITALDIA Durango :: Azaroak 4

Poesia errezitaldia Charo Lopezen eskutik, Durangon

Charo Lopez aktoreak 'Verso a verso' poesia errezitaldia eman-
go du, Luis Santana baritonoa
eta Victor Carbajo pianista bi-
delagun dituela. Une batean,
argi kolpe batean, enfokatu-
zen dituen irudiak berbetan jasotzeko
gai den argazki bat lez
funtzionatzen ei du poesiak.
Bada, Lorca, Machado, Miguel
Hernández, Santa Teresa de
Jesús... olerkariaren poesiak en-

tzuteko aukera egongo da, za-
patuan, San Agustin kulturgu-
nearen aterpean. Errezitaldia
19:00etan hasiko da.

"Poesiak baino ez du salbatzen
ahantzuratik. Nazio batek,
kultura batek, bere iragana,
oraina eta etorkizuna berreraiki
ditzake, poesiak bere berbe-
kin erreturatzen dituen neurrian".
Halaxe diote 'Verso a verso' er-
rezitaldiari buruzko sinopsian.

Azaroak 3an

ABADIÑO bertsoak
'Poesia zaurien ukendu'.
Unai Iturriaga eta Miren
Amuriza. Ainhoa Urienek
gidatuta. 19:00etan,
Isioturen lokalean.

BERRIZ antzerkia
'Anbotoko Mari' (Logela
Multimedia), 17:00etan,
Kultur Etxean.

BERRIZ berbaldia
'Nola lagundu seme-
alabei etxeko lanak egiten
euskaraz ez badakigu?
Zein da euskararen
papera gure seme-alaben
etorkizunean?' (Arrate
Gisasola), 17:00etan,
eskolako liburutegian.

ELORRIO dantza
'Los Perros' (Led Silhouette),
20:00etan, Arriola antzokian.

IURRETA musika
Itziar Yague, 19:00etan,
kultur etxean.

ZORNOTZA antzerkia
'Cabeza de cartel'
(Perigallo), 20:00etan,
Zornotza Aretoan.

ZORNOTZA jaiak
Igel txapelketa, 19:00etan,
Luis Urrengotxea kalean.
Zornotzako Otxotea,
19:30ean, kalejoitik hasita.
Gu eta Gitarrak, 20:00etan,
kalejoian.
Txalainak, 22:30ean, Euskal
Herria enparantzan.

Azaroaren 4an

ABADIÑO antzerkia
'El papa' (La Locandiera),
19:00etan, Errota kultur
etxean.

BERRIZ musika
Amaia Miranda + Henrio,
19:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO jaialdia
Durango Entertainment
Xperience (DEX), 11:30etan,
Plateruena kultur aterpean.

ZORNOTZA jaiak
Umeentzako jokoak, Euskal
Herria enparantzan (11:00-
14:00).
Arantzarte dantza taldea,
12:00etan, Luis Urrengotxea
kalean.
Sukalkien aurkezpena,
14:30ean (sari banaketa,
15:00etan).
Elektrotzaranga, 18:00etan,
Lopena tabernatik hasita.
Radiocrimen + Segis
taldeak, 21:30ean,
Zelaietako karpa erraldoian.

Azaroaren 5ean

DURANGO musika
'Ondinaren magia'
(Euskadiko Orkestra),
18:00etan, San Agustin
kulturunean. XXXIV. Musika
Hamabostaldia.

ELORRIO urteurrena
Gure Esku Elorrio. 10.
urteurrena.
Topa, 13:00etan, Aldatzekuan.

Kalejira animatua.
Bazkaria, 14:30ean, plazan.

ZORNOTZA jaiak
Umeentzako jokoak, Euskal
Herria enparantzan (11:00-
14:00).
Trikitilarien (Soinutxikie)
kalejira, 12:00etan.
Giza proba: Harriti neska
proba taldea vs Lutaber,
12:30ean.
Lutaber errifaren zozketa,
15:00etan.

Azaroaren 9an

ABADIÑO berbaldia
'Krisi ekososiala' (Hizlaria:
Alaitz Ajuriagerra, Jauzi
Ekosozialeko eta LABeko
kidea), 19:00etan, Isioturen
lokalean.

DURANGO antzerkia
'Ez naiz inoiz Dublinen
egon' (Tentazioa
Produktzioak), 19:00etan,
San Agustin kulturunean.

ELORRIO musika
M&Swing Machine,
20:30etan, Ateneoan. Arriolako
XXXIV. Jazz Blues Jaialdia.

ZALDIBAR aurkezpena
'Aupa Pou: bizitzari
sokaz lotuta' liburuaren
aurkezpena, 18:30ean,
liburutegi zaharrean.

Azaroaren 10ean

ABADIÑO antzerkia
'Baginaren bakarrizketak'
(Txalo Produktzioak),
20:30ean, Errotan.

BERRIZ musika
Los Sara Fontan, 21:00etan,
Kultur Etxean.

ELORRIO musika
Xahu Quartet, 20:00etan,
Ateneoan. Arriolako XXXIV. Jazz
Blues Jaialdia:

IURRETA musika
'El jazz de Claude
Bolling' (JazzClassic
Ensemble), 19:00etan, kultur
etxean.

ZORNOTZA jaialdia
'Euskal Herriko doinuak
2023 Etxano - Xabier
Amuriza, Torreburutik
Euskal Herrira kantuz'.
Etxanoko Erraldoien
kalejira, 17:30ean, Etxanon.
Ikastetxe guztietako
haurren kantaldiaren
topaketa, 18:00etan.
Umeen kantaldia Abeskimu
koruak lagunduta,
18:30ean.

ZORNOTZA omenaldia
'Lurdes gure bihotzean'
oroimen ekitaldia, 19:30ean,
Zornotza Aretoan.

Azaroaren 12ra bitartean

DURANGO erakusketak
'Bizitza baten islada:
itsasoa, mendia eta
gorputza' (Jaime Vicarioren
lanak) eta 'Zorionez
bartzertuak' (Patricia
Laiseka) erakusketak, Arte
eta Historia museon.

Zinema

:: Berriz
KULTUR ETXEA

• **Los asesinos de la luna**
barikua 3: 19:30
domeka 5: 19:30

:: Durango
ZUGAZA ZINEMA

• **Saben aquell**
barikua 3: 18:30 / 21:00
zapataria 4: 16:30 / 19:00 / 21:30
domeka 5: 17:30 / 20:00
astelehena 6: 18:00 / 20:15
martitzena 7: 18:00 / 20:15
eguztzena 8: 19:00

• **Five night's at Freddy's**
barikua 3: 18:30 / 21:00
zapataria 4: 16:30 / 19:00 / 21:30
domeka 5: 17:30 / 20:00
astelehena 6: 18:00 / 20:15
martitzena 7: 18:00 / 20:15
eguztzena 8: 19:00

• **O Corno**
barikua 3: 18:30
zapataria 4: 19:00
domeka 5: 18:30
astelehena 6: 18:00
martitzena 7: 18:00

• **Esta ambición desmedida**
barikua 3: 21:00
zapataria 4: 21:30
domeka 5: 20:30
astelehena 6: 20:15
martitzena 7: 20:15

• **Trolls 3: Todos juntos**
zapataria 4: 16:30
domeka 5: 16:30

• **Lucky**
eguztzena 8: 19:00

:: Elorrio
ARRIOLA ANTZOKIA

• **24 ordu digitalean**
zapataria 4: 20:00

• **O Corno**
domeka 5: 20:00
astelehena 6: 20:00

• **Abentura erraldoia**
domeka 5: 17:00

:: Zornotza
ZORNOTZA ARETOA

• **O Corno (JBGA)**
zapataria 4: 20:00
domeka 5: 20:00
astelehena 6: 20:15

• **La patrulla canina:
la superpelícula**
zapataria 4: 17:00
domeka 5: 17:00

• **Bidasoa 2018-2023 (JBGA)**
eguztzena 9: 20:15

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

* **Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak

“Jende nagusiak ez du ia saiorik lortzen, eta gazteontzat oraindino gatxagoa da lortzea”

Irene Zarrabeitia aktore eta zuzendari abadiñarrak La Higuera konpainia sortu du Libe Estebarezegaz batera

ANTZERKIA • ARITZ MALDONADO

Libe Estebarez bilbotarrak eta Irene Zarrabeitia abadiñarrak 'Nire usaina galdu nuen eguna' lana estreinatu dute (euskarazko bertsiotan) Bilboko BAD jaialdian; biek sorturiko La Higuera konpainiaren lehenengo lana da hau. Maitasun erromantikoaren inguruko gogoeta egin dute bertan.

Nondik dator ideia?

Libe Estebarez: Dantzertin nengo garaian, *El día que dejé de oler a mí* testua sortu nuen. Oso momentu berezia izan zen nire bizitzan, inoiz ez baitut topatu munduari esateko ezer; beti neuretzat idatzi izan dut. Maitasun erromantikoari buruz ikertzen hasi nintzen, zelan eragiten gaituen. Horrez gainera, nire gurasoak banatuta daude, eta konturatu nintzen hor ere bazegoela antzekotasuna; etxer aldatzerakoan, nire usaina galtzen joan nintzen, ez zegoe-lako leku bat berau mantentzen zena. Ideia Trantsizioak deialdira aurkeztu nuen, eta hor onartzeak beharrezkoa nuen bultzada bat eman zidan, nigan sinesteko, konpainia sortzeko, eta obra luze bat egiteko. Horri eskerrak arriskatu nintzen.

Protagonistak Libe eta Irene deitzen dira. Zenbat du obrak autobiografikotik?

Irene Zarrabeitia: Ni, hasieran, zuzendaria baino ez nintzen, Amets Ibarra zen aktorea, eta gero hartu nuen papera; beraz, euren bien biografiatik sortu zen. Autofikzioan, biografia noraino sartu erabakitzea gatxa izan zen, hala ere. Gezurra eta egia batu egiten dira, baina beti ere emaitza narratiboaren mesedetan. Irene deitzen da, baina ez du ezer Irenetik. Baina, azken finean, antzerkia hori da, ezta? Edozein istorio kontatu dezakezu edozein modutan. Niri Amets ordezkatzeko ez zitzaidan gatxa egin. Pertsonaia ulertu eta pertsona horren azalean sartzea da lana.

Elkarregaz egin duzuen lehenengo sorkuntza izan da hau?

I. Z.: Sopolako antzokian gaztelaniaz estreinatu genuen, apirilean, eta orain euskaraz. Pentsa, bigarren estreinu hau La Fundación aretoan egin dugu, behean, publikoa parez pare dugula. Esperientzia desberdina izan da, baina polita.

L. E.: Prozesua bera 2021ean hasi genuen, eta urte gorabeheratsu bi izan dira, baina asko ikasi dugu; entsegu gelarik barik hasi ginen, alde batetik bestera, elkartzeko zailta-



sunekin, eta, hala ere, aurrera atera ahal izan dugu. Ez dugu aipatzen, baina garrantzitsua da baita ere azpimarratzea Trantsizioa deialdian dirurik jaso ez duen deialdia izan dela gurea. Beharbada gu baikorregiak izan gara, baina prekaritatetik ere aurrera egin ahal izan dugu. Elkarrengandik asko ikasi dugu obra hau sortzerakoan, eta urte bi hauetan, antzetzetik aparte, beste lan batzuk kudeatzen ere ikasi dugu: burokrazia, teknikariekin lan egitea...

'Deicing' metodoa erabiltzen duzue La Higuera.

I. Z.: Lana ez jerarkizatzeke metodo bat da, labur esanda; hau da, sorkuntza denon artean egitea. Horrek ez du esan gura bakoitzaren lana ez denik aitortzen. Bakoitzak berea ez den alorrean ere egiten ditu ekarpenak; jendea gogo eta energia beretsuan dagoenean, itzela da.

L. E.: Diziplina desberdinak erabili ditugu, eta, adibidez, Adrian Gonzalezen bideoak ere erabili ditugu iragana aipatzeko, eta Martin Lasaren marrazkiak istorioa kontatzeko. Komunitatetik sortu gura izan dugu.

Zein litzateke hurrengo pausoa? Zer egiteko asmoa duzue?

L. E.: Obra gehiago zabaltzen ahaleginduko gara; ez dugu gura orain hiltzea. Baina horrek lana dakar, eta gatxa da. Jende nagusiak ez du ia saiorik lortzen, eta gazteontzat oraindino gatxagoa da lortzea. Baina ahaleginduko gara. Egia esateko, ez daukagu ezer lotuta.

I. Z.: Koronabirusaren ondoren, aurrekontuak murriztu egin dira kultur arloan, eta gatx dago, baina prest gaude ea beste ezer irteten zaigun.

Domekan ekingo diote Durangoko Hamabostaldi Musikalaren XXXIV. edizioari

Euskadiko Orkestrak 'Ondinaren magia' emanaldia egingo du domekan, hilak 5, 18:00etan

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Asteburuan hasiko da Durangoko Musika Hamabostaldiaren 34. edizioa, Euskadiko Orkestraren emanaldiagaz. Ohikoa den moduan, lau emanaldik osatuko dute zikloa, eta aurten San Agustin kulturgunean izango dira denak. Ziklo honetan, Euskadiko Orkestrak *Ondinaren magia* emanaldia aurkeztuko du. "Musika eskolekin ditugun kolaborazioek auke-

ra itzela ematen dute gazteenak musikara erakartzeko. Durango-koagaz egiten dugun hirugarrena da hau", azaldu zuen orkestrako zuzendari Mikel Cañadak prentsaurrekoan. Bigarren emanaldia Kuttune Folk taldearen kontzertua izango da; *Zer ote da?* bigarren diskoaren aurkezpen biraren barruan sartu dute saio hau. Azaroaren 18an, Sant Andreu Jazz taldeak eta Èlia Bastida abeslariak

emango dute kontzertua; 7tik 21 urtera bitarteko gazteek osatzen dute banda. "Askotan ahalegindu gara eurak ekartzen, duten maila handiagaitik eta proiektu pedagogikoa delako", azaldu zuen Alfredo Sanz zuzendari ohiak. Zikloa borobiltzeko, Judith Jauregi pianista entzutetsuak emango du kontzertua. Hamabostaldira datoren bigarren aldia da. 2012an ere aritu zen bertan.



Hamabostaldi Musikalaren aurkezpena Durangoko Musika Eskolan.



Zornotzako jaietako argazkia. PEIO ZAMA.

“Oraindino ez dut asimilatzen, baina gurago dut ez pentsatu, urduriago ez ipintzeko”

Akerbeltz taldeak kontzertu solidarioa emango du, 15 urteko jarduna ospatzeko; 21:00etan hasiko da

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Akerbeltz erromeria taldeak hamabost urte egin ditu aurtan, eta emanaldi berezia antolatu dute zaturako, urteurrena borobiltzeko. Gonbidatu bereziak izango dituzte; besteak beste, Alex Sardui, Zuriñe Hidalgo eta Rozalén bera. Baturiko dirua EITBren maratoina bidaliko dute. Akerbeltz aldean Jon Castañeda 'Jonkass' zornotzarrak abesten du. Andoni Ollokiegik hasiko du gaualdia, 19:15ean, eta 21:00etan hasiko da Akerbeltz taldearen kontzertua.

Gogotsu zaturako?

Jon Castañeda 'Jonkass': Hamabost ur-

te egin ditugunez, urte berezia izaten ari da. Ezohiko gauzak egiten ahalegindu gara, antzokietan bira adibidez: Gasteizko Jimmy Jazzen, Donostiako Dokan eta Bilboko Kafe Antzokian aritu gara. Azkenekorako, zerbait berezia egin gura genuen. Gainera, EITBren parte hartzea kontuan hartuta, Durangoko Landako Gunea aukera egokia zela pentsatu genuen. **Gonbidatu asko izango duzue zaturatu.**

J. C.: Bai, eta guretzat ere sorpresa bat izan da, ez genuen espero eta. Gonbidatuak pentsatu ahala deitzen hasi ginen, eta ezezkoa

jasoko genuela pentsatu arren, sorpresa hartu dugu. Esango nuke oraindino ez dudala asimilatu, baina gurago dut ez pentsatu, osterantzean urduriago ipiniko naiz eta. Oso egun polita izango da, eta, gainera, EITBk grabatu eta ondoren telebistan emango dutenez, gerora ere gozatu ahal izango den egun bat izango dela uste dugu.

Ekimen solidarioa izango da, gainera.

J. C.: Bai. Hau guzti hau martxan ipini genuenean, lorturiko dirua beste norabaiterako izan zitekeela pentsatu genuen, eta minbiziaren aurkako egitasmo honetarako erabiltzea polita izan zitekeela iruditu zitzaigun.

M&A Swing Machineren doinu dantzagarriak, Ateneoan

Azaroaren 9an hasiko da Arriolako XXXIV. Jazz Blues jaialdia Elorrioren; 20:30an izango da lehenengo emanaldia

MUSIKA • A. M.

Arriolak Jazz&Blues jaialdia antolatu du, 34. aldiz. M&A Swing Machine hirukoteak zabalduko du jaialdia, datorren egunean, azaroak 9; Ateneoan izango da kontzertua, 20:30ean. 30eko eta 40ko swinga, eta 60ko soula oinarri hartuta, gaur egungo *beaten* indarra gehitu dio hirukoteak doinu dantzagarriak osatzeko. Asteburua borobiltzeko, Xahu laukoteak, The Wilson organo hirukoteak eta La Siggarta blues taldeak emanaldiak egingo di-

tuzte, barikuan, zaturatu eta domekan, hurrenez hurren; La Siggarta taldearen kontzertua gaztetxean izango da; gainerakoak, Ateneoan.

Azaroaren 16an, Han talde elorriarrak bere hirugarren lana aurkeztuko du Ateneoan. Eta, barikuan, Kinkolk taldeak bere funk doinuak erakutsiko ditu; bestalde, zaturatu, South 61 zazpikoteak blues doinuz beteko du Ateneoa. Jaialdia borobiltzeko, Erromintxelak taldeak emango du, hilaren 19an, Portalekuan.



M&A Swing Machine.

Gai librean

Gazteak eta txapelketak

Udagoienagaz batera, ia urtero gai bera izaten dut bueltaka neure buruan, inkontzienteki, gura ala gura ez. Beti dago hor. Txapelketaz ari naiz. Bertsolari gazteok bertotan dakigunetik ari gara txapelketen edo sariketen bueltan, eta zerbait badira hauxe dira: emozio txikiak erraldoitzen dituzten puzgailuak. Puzten eta puzten dihardute, gure emozioak, gu, lehertzeraino.

Orain dela aste bi hasi nuen ibilbidea Bizkaiko Bertsolari Txapelketan. Eta, hasi legez, amaitu. Ibilbidea hasi eta buka egun berean egin dezakeen arren, hileetako odisea igaro dezake bertsolariak. Udaberritik puntuen giroan sartzen da. Batzuek, hain zuzen, aurrekanporaketa bat ere igaro behar izan dugu. Aurrera egin genuenok uda-



Igor Galarza Intxausti
Kazetaria

berriko tentsioa baretzetik udagoieneko kirioak berriz dantzan jartzera igaro gara denbora gutxian. Bakoitzak bere helburuak jar ditzake: finalerdiak, finala edo, beste barik, gozatzea. Baina hilabeteak ari zara prestatzen egun bakarrerako. Gero, gaitasuna eta zorte apur bat baduzu, beste egun bat edo bi izango dituzu aurretik, baina bakar horretan saio on bat egitera derrigortuta zaude.

Oro har, bertsolariak, txapelketak daukan lehia kutsutik urrun bizi gura izaten dute. Bertsoa inoiz ere ez baita puntuetan epaitzeko sortua izan; txaloek, irribarreek, emozioek ematen diote balioa bertsoari. Baina, oraingoan ere, gure nahiaren gaintik jarri da errealitatea. Gehiegi baldintzatzen gaitu txapelketak. Eta ez da txapelketa bertsogintzaren muinean jartzan

dugulako, txapelketek eta sariketek (lehiak, finean) gazteen zirkuitua osatzen dutelako eta horietan emandako errendimenduak plaza desberdinetatik deitzeko aukeretan eragiten duelako.

Txapelketaren estetikatik kanpo abestu gura duten gazte bertsolariak malkotan jausten ikusi ditut saio amaierako agurretan edo oholtzatik jaitsi ostean. Haserreak ikusi ditut, nik ere izan ditut. Bertso zirkuitu zabala eduki gura duen gazte belaunaldiaren errealitatea da: gugandik eta guretzako plazak sortzen jarraitu badezakegu ere, txapelketak pisu handiegia dauka gure egunerokoan. Txapelketan jarraituko duten gazteei, artean Durangaldeko bost, animoak. Ez dezatela puntuek agindu, behetik saiatuko gara txapelketa lagunarteko bihurtzen.



Arkaitz Rementeria Bildosola

Padel jokalaria

IURRETA | 1988

“Portugal zen favorito, baina presiorik barik kantxaratu eta gure bizitzako partidurik onena jokatu genuen”

Arkaitz Rementeria iurretarrak Europako padel txapelketa irabazi du beteranoen mailan Euskadiko selekzioagaz

PADELA • JOSEBA DERTEANO

Lehenengo ezustekoa Euskadiko selekzioaren deia jasotzea izan zen. Eta Europako txapelketa bat jokatzeko berez gauza handia bada, zer esanik ez partidu erabakigarria norberak jokatu eta faboritorik handienak zirenei irabaztea. Alvaro Matadorregaz osatu du bikotea.

Arkaitz, Europako txapelduna zara. Zelako ondo ematen duen belarrira.

Egia esanda, bai. Niretzat sorpresa izan da. Lehenengo eta behin, Euskadiko selekzioak ni hautatu izana, nire adin bueltan oso jokalaria onak

daudelako. Ekainean Espainiako txapelketa irabazi nuen eta horrek eragina izan zuen. Gero, Portugalen kontrako partidu garrantzitsu hori jokatzeko eta irabazteko... Oraindino sinistu ezinda nago.

Zelan joan da txapelketa?

Lehenengo, taldekako ligaxka gainditu genuen. Suitza, Irlanda eta Alemania zeuden gure taldean. Finalerdietan Danimarka kanporatu genuen. Europako herrialde horiek apurka-apurka dabilta padelean sartzen. Euren kirol nagusia tenisa da, eta asko tenisetik padelera egokitu dira. Tenisetik datozen bikote

batzuek oso maila handia dute, baina beste batzuek ez hainbestekoa eta horrek erakusten du herrialde horietan oraindino padelak ez duela goia jo.

Finala Portugalen kontra jokatu zenuen. Eurak ziren favorito?

Bai, favorito ziren. Padela oso kirol indartsua da Portugalen. Maila guztiak kontuan hartuta, Portugalak 30 kirolari eraman zituen, eta guk 15 baino ez. Txapelketan partidu gehiago jokatu behar izan genituen eta fisikoki karga handia generaman.

Zelan joan zen finala?

Maila bakoitzak puntu bat banatzen zuten. 55 urtetik gorakoan irabazi egin genuen; 50 urtetik gorakoan galdu; 45 urtetik gorakoan irabazi eta 40tik gorakoan galdu. Bina berdinduta, gure partidua, 35 urtetik gorakoa, erabakigarria izan zen. Gure kontra jokatu zutenak torneoko bikoterik onena ziren. Portugalgo bikoterik onena da eta zirkuitu profesionalean jokaturikoak dira.

Ez zen edozelako erronka.

Esango nuke partidua irabazitzat eman zutela jokatu aurretik. Kontua da horrelako partidu batean

presioak zeresan handia duela. Gu presiorik barik kantxaratu ginen. Eurek zuten karga hori. Gauzak horrela, guk geure bizitzako partidurik onena jokatu genuen. Egia esan, nire bikotekideak, Alvaro Matadorrek [Badajozen jaioa, Getxon bizi izan da urte askoan], ibilbide luzea duela padelean, eta profesionalean ere asko jokatu du, baina, hala ere, ezustekoa izan zen.

“Estatuan dena irabazita duen Jon Garcia-Ariño horrela ospatzen ikustea hunkigarria izan zen. Bere ibilbideran Top3an sartzen duen partidua dela esan zidan”

Zein izan zen zuen taktika?

Gure aulkian Eduardo Simal hautatzailea eta Jon Garcia-Ariño izan ditugu. Garcia-Ariño Espainiako hautatzailea izan da 15 urtean. Esperientzia handia du, eta prestigioa. Aholkuak emateko orduan,

Pep Guardiolen parekoa. Gugaz lan psikologiko handia egin zuen finalean. Ez ginela aurkariak baino gutxiago ikusarazten zigun. Lehenengo setean 1-4 galtzen hasi ginen, baina egoerari buelta eman eta set hori irabazi genuen. Sorpresa handia izan zen eta bigarren setari aurre egiteko sekulako indarra eman zigun. Gu psikologikoki gorantz joan ginen moduan, eurak beherantz joan ziren.

Partidu horretako denak profesionaletan ariturikoak dira, zeu kenduta. Zeure errendimenduz gaituta zaude?

Bai. Harritu egin nintzen eta kanpotik begira zeudenak ere harritu ziren, momenturik gogorrenei zelan aurre egin nien ikusita. Egia esan, azkenengo joko bietan 'laguntza' eman ziguten. Hau da, oso nerbioz egon ziren eta akatsak egin zituzten. Gure taktika tantoak luzatzea zen, eraman eta eraman, arriskatu zezatela eurek.

Zelakoak izan ziren partidua irabazi osteko momentuak?

Poz handikoak. Nigaitik eta inguruan ikusten nuenagaitik. Nire lehenengo Europako txapelketa zen, baina nire taldekide asko sarritan ibiliak dira European, eta ordura arte ez zuten irabazterik lortu. Esaterako, estatuan dena irabazi duen Jon Garcia-Ariño horrela ospatzen ikustea... hunkigarria izan zen. Bere hautatzaile ibilbidean, Top 3an sartzen duen partidua dela esan zidan.

Noiztik zabilta padelean?

Berandu hasi nintzen. 22 urtera arte txirrindularia izan nintzen. Hasieran, teknika lantzea kostatu zitzaidan. Garaikurraren atzean, ikusten ez den lan handia dago. Orain ia nire bizitza osoa da padela. Egunero zortzi-hamar ordu egiten ditut klubean. Entrenatzen eta Padelkon klaseak ematen... Zortzi urte daramatzat monitore. Azken urteetan padela profesionalizatu egin da. Gazteak 15-16 urteagaz hasten dira, padelerako dedikazio osoagaz. Zirkuitua oso lehiakor jarri da. Kirolariak oso prestatuta daude.

Kalitateak ez ezik kantitateak ere nabarmen egin du gora.

Horrela da. Padela bigarren kirol praktikatuena da estatuan. Lizenzia mailan tenisa gainditu du. Espainian bost milioi lagun inguruk jokatzen dute padelean. Euskal Herrian, urterik urtera, lizenzia kopurua %20 edo %30 hazten da. Azken batean, padela adin guztietan praktikatu daitekeen kirola da. Ez da moda bat, errotu egingo da.

DRTk Movember logodun galtzerdiak atera ditu, mugimenduari elkartasuna adierazteko helburuagaz

Durango Rugby Taldeak urtero bat egiten du prostatako minbizia prebenitzearen kontzientziazio kanpainagaz



Durango Rugby Taldeko Iker Mendieta aurtan atera duten galtzerdiagaz.

ERRUGBIA • J.D.

Urtero legez, Durango Rugby Taldeak bere egin ditu Movember mugimenduko helburuak, eta bere sostengua erakutsi dio ekimenari. Azaroan zehar bibotea utzita, prostatako eta barrabiletako minbiziaren aurrean prebentzioak duen garrantziaz herritarrak kontzientziatzea da ekimenaren helburua. DRT ekimenari bere ukitua ematen ahalegintzen da urtero, eta Movember logodun produktuak kaleratzen ditu. Aurreko urteetan kamisetak, eskumuturrekoak eta txo-

kolate tabletak atera izan ditu, besteak beste. Aurten galtzerdiak atera dituzte eta Rugby Tabernan eskuratu daitezke.

Azaroaren 30erako, kanpainaren azken egunerako, Mov-Day eguna antolatu dute Rugby Tabernan. Pintxopoteari laguntzeko, opariak zozkatu eta photocall-a egingo dute. Horrez gainera, laguntzaile dituzten Saltsaneko, Mesoi Berriko eta Izarbidetako produktuekin osaturiko otzara bat zozkatuko dute. Movember kanpainaren gaineko informazioa es.movember.com webgunean.

Onenen txanda Olazarren, final-laurdenetako neurketetan

Lau eta erdiko eta binakako lau bikoterik indartsuenen arteko kanporaketak hasiko dira egunean

PILOTA • J.D.

Hile eta erdian kanporaketak jokatu eta gero, Olazar txapelketako pilotaririk sasoikoenek final-laurdenetatik aurrerako bideari ekingo diote datorren asteko egunean, 21:30ean hasita. Partidu hauek jokatu dira: Irribarria Kortazarren aurka lau eta erdian, eta Hormaetxe-Apezetxea eta Aristegui-Apeztegia bikoteak binaka. Partidu biak anboto.org webgunearen bitartez zuzenean jarraitu ahal izango dira. Lau eta erdiko neurketan Irribarria izan-

go da faborito, baina Kortazarrek sasoian dagoela erakutsi du txapelketan zehar, eta, gainera, iazko errebantxa hartu gurako du. Izan ere, iazko final-laurdenetan indarrak neurtu zituzten pilotari bi hauek eta orduan Irribarriak irabazi zion Kortazarri, 22-14.

Binakakoan ez dago faborito argirik. Apezetxea atzelari segurua da eta Hormaetxe aurrelari abila tantoa amaitzen, baina Aristegik eta Apeztegiak ere badituzte euren armak.



Zaldibarko Olazar pilotalekuan jokatu dira partiduak.

Bizkaiko zesta-punta txapelketako finalak jokoan, Durangon

ZESTA • J.D.

Profesionalena nahiz afizionatuen zesta-punta jaialdiak ugaritu egin dira Ezkurdi Jai Alain, pilotalekua eraberritu zutenetik hona. Asteburu honetan, afizionatu mailako jaialdi berri baten txanda izango da. Zapatuan, Bizkaiko klubena ar-

Zapatu arratsaldeko final guztiak Berriatuako eta Markinako klubena artekoak izango dira

teko finalak jokatu dituzte, 17:00etan. Sarrera doakoa da.

Gaur egun, Berriatu eta Markina dira zesta-puntako harrobirik indartsuenak, eta finalak horren erakusgarri dira. Bost finalak, kadeteetatik nagusien mailara artekoak, herri bietako klubena artekoak dira.

Horrez gainera, Durango Ezkurdi Jai Alain zesta-punta eskolako bazkideen eguna ere izango da. Bazkari bat antolatu dute, eta bertan bazkide txartelak jaso ahal dira. Txartelak jasotzeaz gainera, sorpresa txiki bat egongo dela ere aurreratu dute.

Jokaldia

Agur Munduko Kopari

Kito, amaitu da 2023ko Skyrunner Munduko Kopa, lurra eta zerua bat egiten duten mendi lasterketen zirkuitua. Zortzi herrialdetan jokaturiko hamahiru lasterketa izan dira guztira, final handia barne. Lasterketa bi Italian izan dira, bi Portugalen, bi Austriar, bi Frantziar, eta bana Suitzan, Kanadan, Perun, Espainian eta Euskal Herrian (Gorbeia Suzien). Saillapen nagusiari begira, lasterketa horietariko hiru egin eta amaitu behar ziren gutxienez.

20tik 45 kilometrora bitarteko probak izan dira, 2.000 metrotik gorako hainbat mendi igo behar izan dugu, eta era guztietako ibilbideetan ibili gara: gailurrerietan, glaziarretan, via



Oihana Azkorbebeitia Urizar
Mendiko korrikalaria

ferratetan, ibilbide arrokatsuetan, zelaietan, basoetan...

Saillapen nagusiari dagokionez, nesketan Clementine Geoffroy frantziarrak irabazi du, merezimendu osoz. Lasterketa bi irabazi ditu, beste batean bigarren geratu da, eta finalean laugarren. Kontuan hartuta aurten munduko txapeladuna ere izan dela Innsbrucken (Austria), txapela kentzeko moduko denboraldia egin du. Bejondeiola. Karina Carsolio mexikarra saillatu da bigarren, eta Iris Pessey frantziarra hirugarren.

Pena apur bat hartu dut Pesseygaitik, zorte txarra izan duelako. Bikain hasi zuen Kopa, lasterketa bi irabazita, baina ezin izan du finala ehuneko ehunetan lehiatu, lesionatuta heldu delako. Mutiletan, korrikalari espainiar bi

nabarmendu dira beste guztien artean. Antonio Martinez izan da txapeladuna, eta Manuel Merillas bigarrena, aurtengo Zegama-Aizkorriko irabazlea.

Dagoeneko erabakita daude 2024ko Skyrunner zirkuituko lasterketak. Hogei izango dira guztira, hamahiru herrialdetan. Ilusio handia dut etxekoan parte hartzeko, Gorbeia Suzien, eta badut esperantza Italiako batera ere joateko, Trofeo Kimara, baina ez dut Kopako zirkuitua lehiatuko berriro. Esfortzu handia eskatzen du, handiegia niretzat gaur egun. Kopari agur esateko ordua dela pentsatu dut, ziklo hori amaitzeko ordua dela. Ur gaineko bitsetan nago orain arte lorturikoagaz, eta ikaragarri baloratzen dut parte hartu dudana sei urteetan lehenengo hamarren artean saillatzea.



Otamotzena

Zentro zibikoaren inaugurazioa Durangon

Argazkiak: UNAI OLASO





Ez baduzu hanka
sartu nahi,
sartu zure iragarkia
IragarkiLaburrak.eus
atarian

Hemen
eta online 

Botikak

BARIKUA, 3 · 09:00-09:00

MUGICA, ANDRA MARIA 9 - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA
5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL
15 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 4 · 09:00-09:00

BALENCIAGA,
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-13:30

GAZTELUMENDI,
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

MUGICA, ANDRA MARIA 9 - DURANGO

BALENCIAGA,
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

DE DIEGO,
INTXAURRONDO 22. - DURANGO

BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO

SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO

CAMPILLO,
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA,
BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA,
TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL
15 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN,
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 5 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI,
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 6 · 09:00-09:00

IRIGOIEN, BIXENTE
KAPANAGA 3 - IURRETA

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 7 · 09:00-09:00

SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 8 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA,
MURUETATORRE 2C - DURANGO

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL
15 - ZORNOTZA

EGUENA, 9 · 09:00-09:00

CAMPILLO,
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEO 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGIA
Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozategia
gozatugozategia



Zorionak, **Jurgi!** 8 urte egin dituzu! Musu handi-handi bat zure familiaren partez. Askok maite zaitugu.



Azaroaren 5ean **Juneke**, Matienako futbol jokalarari onenak, 10 urte egiten ditu. Zorionak Carmen eta Yosuren partez.

Eguraldia

ZAPATUA 🌡️ 10° / 18° ☁️

ASTELEHENA 🌡️ 7° / 13° ☁️

EGUAZTENA 🌡️ 7° / 15° ☁️

DOMEKA 🌡️ 10° / 16° ☁️

MARTITZENA 🌡️ 5° / 14° ☁️

EGUENA 🌡️ 10° / 14° ☁️

ESKELAK

946 816 558 · anboto@anboto.org

anboto.org/eskelak

Anbotokideek deskontua izango dute.



"Mutil-laguna Puro Relajoren kontzertu batean ezagutu nuen"

Idurre Amezua Puro Relajo taldearen zale sutua da; orain sei urte ezagutu zituen, Arratzun, eta harrezkero aukera duen guztietan joaten da talde nafarrak emaniko kontzertuetara



Idurre Amezua Iparraguirre
Puro Relajoren jarraitzailea
ABADIÑO | 1979

ABADIÑO • AITZIBER BASAURI

Orain aste batzuk Mañarian izan zen Puro Relajo, etxe alboan. Hala ere, Idurre Amezuak ez zuen bertara joateko aukerarik izan, lan egin behar zuelako. Talde nafarraren zale amorratua da abadiñarra.

Zelan ezagutu zenuen Puro Relajo?

Arratzun entzun nituen lehenengoz, 2017an. Lagun batek esanda joan nintzen. Liluratuta geratu ginen. Guztiz harrapatu ninduten! Oso jatorrak dira gainera, dena

ematen dute. Beti daude prest argazkiak ateratzeko, jarraitzaileekin egoteko, beti umoretsu... Etxekoak lez dira. Pastelak, litxarriak... eroaten dizkiet noizbehinka.

Beti gustatu izan zaizkizu rantxerak?

Bai. Egan, Akelarre... ikustera joan naiz beti. Baina Puro Relajo beste kontu bat izan da. Egunero entzuten dut, kotxean. Abestiek lasaitasuna ematen didate, dantzagarriak dira...

Zein duzu rantxerarik gustukoena?

Esta es pa mi viejo. Aita hilari eskainia da, oso hunkigarria.

Ahal izan duzun denetan joan zara Puro Relajo ikustera. Nora joan zara urrunen?

Castelloko Tirig herrira (Valentzia) joan ginen iaz, lagun bi. Ordizian ikusi genituen lehenengo, eguazten batean, eta bariku horretan Tirigen jotzekoak ziren. Bada, esan eta egin, bertara joan ginen. Bi edo hiru egun egin genituen han. Soria eta Errioxara ere joan gara Puro

Relajo ikustera.

Asteburuetako plan asko izango zenuen Puro Relajo ikusteko.

Bai. Antzokietan jo izan dutenean sarrera aurretik hartu behar izan dugu, eta plana gero lotu. Bertan lo egin, eta biharamunean beste non edo non joz gero, haraxe joan izan gara.

Bereziki gogoan duzun kontzerturik?

Iazko sanferminetako oso berezia izan zen. Lehenengoz sanferminetara nindoala; 04:30ean etxeratu eta 06:30ean beharrera joan nintzen.

Non duzu hurrengo hitzordua?

Bihar bertan, Zamudion. Eta azaroaren 11n Morata de Jilocara (Zaragoza) joateko asmoa dugu. Baliteke azaroaren 18an Aibarrera (Nafarroa) joatea. Ikusiko dugu, baina asmo hori dugu. Taldeak 10 urte egin ditu aurrean, eta Bilboko Eliseo

Puro Relajok geroago eta gazte gehiago erakartzen du, eta abesti guztiak dakizkitez gainera

Zelaiak antzokia, Iruñeko Baluarte eta Donostiako Kursaal bete dituzte. Hiruretan egon naiz, jakina! Urteurren birako azken kontzertua Aibarkoa izango da. Gero atsedenaldia hartuko dute urtarrilerara arte. Oso luze egiten zaigu tarte hori.

Jarraitzaile kluba duzue?

Horrelako zerbait. Euskal Herri osoko jendea gara taldean, eta badugu hartu-eman. Kontzertuetara joateko elkartzeko gara. Jende mordea ezagutu dut kontzertuetan. Nire mutil-laguna euren kontzertu batean ezagutu zuen, iaz, Zuatzan.

Modan jarraitzen dute rantxerak eta erromeria doinuek...

Puro Relajok geroago eta gazte gehiago erakartzen du, eta abesti guztiak ezagutzen dituzte gainera. Geroago eta jende gehiago batzen dute eta geroago eta kontzertu gehiago dute. Eurak ere harriritu daude.

Noizko rantxera feministak?

Ez dakit, ba! Galdetuko diet hurrengoan! (barrez)

Lauhortza

Karolina Suarez
Borges
Kazetaria



Oldarraldiari oldartu

Batzuetan zabal besteetan laburrago, halako mugetan hazi zen euskara milurtekoetan. Erasoaldiaren lehen arrastoak Quevedoren bizkaitarraren aurkako ibilera mesprezagarri baina xalok ematen dituzte. Ehun urtera hartu zuten Borboiek agintea, geroko Frantziako Iraultzak ere ez zigun berri onik ekarri. Fanatismoaren hizkuntzan gabiltza ordutik. Karlistadek ez ziguten mesederik egin eta spoiler: Franco iritsi zen. Orduan, odolez bustitako mendi eta arekekin hasi zen euskararen garairik tragikoena.

Ez libururik ezta agurrik ere maiteñoari. Urte luzetako debekua. Hain zen metodologikoa jazarpena ezen ortografiara ere iritsi baitzela. Arrazoirik ñimiñoengatik mehatxuak bete egiten ziren; apaizak ere ez ziren libratzen. Lazkao Txikiri inprobisatuko zituen bertsoen itzulpena alde aurretik eman ziezaiela eskatu zioten agente batzuek: oximoron. Nahiz eta pentsa zitekeen zentsura frankista erlaxatzen joan zela urteekin, estrategiaren parte zen: emaezu soka, harekin urka daitezten. Bidasoaren iparraldean egoera ez zen xamurragoa.

Francoren heriotzak ez zuen iraultzarik ekarri euskarari dagokionez eta hementxe jarraitzen dugu; oldarraldi ideologiko eta judizial baten aurrean. Euskal Herrian euskara inposatzen dela diote hainbat epaik, botere judiziala ari zaigu hizkuntza politika determinatzen. Nahikoa da! Oldartu gaitzen herri gisa euskararen kontrako oldarraldiari. Euskararen aurkako eraso zerrendak bukaera behar du izan. Euskarak beti izan gaitu eta izango gaitu: per omnia secula seculorum. Bihar Bilbora noa, bazatoz?

SAN ROKE BARRIA DURANGO

SALMENTA BULEGOA Astxiki kalea 1, Durango

Ludoteka

Gimnasioa

KALERATZE prezio bereziak

225.000€-tik aurrera+BEZ

Udazkenean obra hasiera

946 46 20 41
www.sukia.com

Zure etxean zaude. Estás en tu casa